

BERANTEVILLA

BERANTEVILLA HERRI MAGIKOA



Egileak:

Kaptusak

ARGANTZUN IKAS.LH5-6



Ikastolen Elkartea

BERANTEVILLA gozatu

KAPTUSIN



CorraDibujosClub
Korrika 2018-2019

Aurkezpena

Kaixo! Kaptusin naiz eta oso alaia eta indartsua naiz. Gaur Berantevilla ezagutzen lagunduko dizuet. Goazen ba!!!

Hello! I am kaptusin and I am happy and strong. Today I am going to help you to acquainted Berantevilla. Go ahead!!!

Presentación

¡Hola! Me llamo Kaptusin, soy muy alegre y fuerte. Hoy os ayudaré a conocer Berantevilla.

¡Vamos allá!

BERANTEVILLA

begirada batean

Kokapena

Berantevilla Arabako hego-mendebaldeko udalerri bat da. Añana eskualdean kokatuta dago.



Erliebe-elementuak

Berantevilla itsas-mailatik 471 m-tara dago. Herriaren erliebea nahiko laua da baina bere inguruan mendiak daude.

Bestelako informazioa

Aspaldi, Verantevilla idazten zen, baina 1706. urtean izena aldatu zioten. Gaur egun, Berantevilla idazten da.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)


ERREKA



Berantevillatik erreka bat pasatzen da eta Ayuda du izena. 8 kilometro luze ditu eta oso sakonera gutxikoa da. Ebro ibaian hiltzen da.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

UR - JAUZIA



Ur-jauziak bi metroko altuera du. Bere inguruan putzu bat eta parke bat dago eta bertan egun polit bat pasa dezakezue.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

ELIZA



Eliza "Nuestra Señora de la Asunción" deitzen da.
Berantevillako eliza bakarra da eta handia da.


ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

DORREA



Berantevillan dorre bat dago. 1800. urtean eraiki zen eta Olagibelek diseinatu zuen. 52m-ko altuera du eta elizarekin batuta dago.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



Hasteko, gure abiapuntutik elizara joango gara.



Deskribapena



Eliza gure lehenengo interesgunea izango da.



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Elizatik pilotalekura joango gara.

Deskribapena

Berantevillako pilotalekuak 25 metro inguru neurtzen ditu eta armaiak ditu.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Berantevillako pilotalekutik herria zeharkatuko dugu eta gure hurrengo erreferentzia puntua Lola jatetxea izango da.

Deskribapena

Lola jatetxea izango da gure hurrengo erreferentzia puntua. Leku atsegina bat da eta handia. Lola jatetxea Berantevilla herriaren amaieran dago.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Zure hurrengo urratsa Berantevillako ur-jauzia izango da.

Deskribapena

Ur-jauzia baxua eta zabala da. Bertan bainatzeko putzua dago eta oso toki atsegina da. Inguruan mahaia daude bazkaldu ahal izateko.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Ur-jauzitik helmugara joango gara. Gure helmuga ur-jauziaren ondoan dago, parke zabal bat da.

Deskribapena

Ibilbidearen amaiera Berantevillako parke da. Bertan, futbol zelai bat dago, bazkaltzeko mahaia, barbakoak egiteko aukera.

Bisitarientzako gomendioak

Ez bota zakarra lurrrera ezta belarrera.

Ez apurtu herriko gauzak.

No tires la basura al suelo ni a la hierba.

No rompas las cosas del pueblo.

Do not throw garbage on the ground or on the grass.

Do not break the things of the town.